

## BESTELAKO XEDAPENAK

EKONOMIAREN GARAPEN, JASANGARRITASUN ETA INGURUMEN SAILA

1286

*AGINDUA, 2022ko martxoaren 8koa, Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburuarena, nekazaritzako eta elikagaigintzako produktuen kalitate-araubideetarako laguntzen deialdiko oinarriak onartzeko dena 2022ko ekitaldirako.*

Nekazaritza Politika Bateratuak aldaketa asko izan ditu hasieratik bertatik, hala lehen ardatzean, merkatu-politikan, nola bigarrenean, landa-garapenean. Landa-garapenaren eremuan egin den azken erreformak oinarritzko lehentasunen kopuru mugatu bati eman dio lehentasuna, eta honen bitartez egin da: Landa Garapenerako Europako Nekazaritza Funtsaren (LGENF) bidez landa-garapenari laguntzeari buruzko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2013ko abenduaren 17ko 1305/2013 (EB) Erregelamendua –Kontseiluaren 1698/2005 (EE) Erregelamendua indargabetzen du–. Erregelamendu honetan aplikatzekoak diren xedapenak Batzordearen 2014ko uztailaren 17ko 808/2014 (EB) Betearazpen Erregelamenduaren bidez ezarri dira. Era berean, Batzordearen 807/2014 (EB) Erregelamendu Eskuordetua, 2014ko martxoaren 11koa, aipatu behar da. Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 1305/2013 (EB) Erregelamendua osatzen du, Landa Garapenerako Europako Nekazaritza Funtsaren bidezko landa-garapenerako laguntzari buruzkoa, eta xedapen iragankor zenbait gehitu zizkion.

Atzerapenak izan dira EBren Urte Anitzeko Finantza Esparruaren onarpenean eta Nekazaritza Politika Bateratuaren erreformari buruzko negoziazioetan. Hori dela eta, NPB berria eta haren Plan Estrategikoak ez dira 2023ra arte indarrean jarriko, oraindik ez baitira onartu Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren eta Europako Batzordearen beharrezko arauak.

Hala, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2020ko abenduaren 23ko 2020/2220 (EB) Erregelamendua argitaratu da (Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2020/2220 (EB) Erregelamendua, 2020ko abenduaren 23koa, Landa Garapenerako Europako Nekazaritza Funtsaren (LGENF) eta Nekazaritza Bermatzeko Europako Funtsaren (NBEF) zenbait xedapen iragankor ezartzen dituen 2021. eta 2022. urteetan, eta erregelamendu hauek aldatzen dituen: 1305/2013 (EB), 1306/2013 eta 1307/2013 (EB) Erregelamenduak, errekurtsoei eta erregelamenduaren aplikazioari dagokionez, 2021. eta 2022. urteetan, eta 1308/2013 (EB) Erregelamendua, errekurtsoei eta laguntza horren banaketari dagokionez, 2021. eta 2022. urteetan). Erregelamendu horren xedea segurtasuna eta jarraitutasuna ematea da, Europako nekazariari emandako laguntzei, bai eta trantsizio-aldian landa-garapenerako laguntzen jarraitutasuna bermatzea ere, horretarako egungo esparru juridikoa zabalduz, lehen zutabeari (NBEF) zein bigarren zutabeari (LGENF) dagokienez, harik eta NPE berria indarrean sartzen den arte.

Erregelamendu erkide horrek badu bere isla Euskal Autonomia Erkidegoan, Euskal Autonomia Erkidegoko Landa Garapenerako Programan, 2015-2020ko aldirako; programa hori Europako Batzordeak onartu zuen, 2015eko maiatzaren 26an, C (2015) 3479 azken erabakiaren bidez. Landa Garapenerako programa horrek 2015-2020ko aldirako laguntza-ildo batzuk ditu, hauek, hain zuzen: M03.1. Nekazariak kalitate-araubideetan lehen aldiz parte hartzeko laguntza, eta M03.2. Informazio- eta promozio-jardueretarako laguntza, barne-merkatuko ekoizle taldeek abiaraziak. Beraz, LGENF funtsaren finantzaketa ere izango dute. Laguntza hauek otsailaren 14ko 43/2017 Dekretuan daude araututa. Dekretu horrek 2015-2020 aldirako Euskadiko Landa Garapenerako Programan jasota dauden laguntzen esparru-araudia ezartzen du (EHAA. 34. Zk., 2017ko otsailaren 17koa).

Elikadura-sektorea sektore estrategikoa da Euskal Autonomia Erkidegoan, eta euskal landa-ingurunearen funtsezko substratua da. Sektore horren lehiakortasuna handitzeko xedeaz, euskal nekazaritzan nolabait sustraituta dauden produktu batzuk bereizteko eta sustatzeko estrategia bat garatu da. Testuinguru horretan sortu dira jatorri-deiturak, adierazpen geografiko babestuak eta kalitate-bereizgarriak; izan ere, janarien ekoizpenari kalitatea emateaz gain, kontsumitzaileen artean oso ospe ona izaten dute.

Kalitate-araubide horietan parte hartzeak batzuetan kostu eta betebeharrak gehigarri batzuk sortzen dituzenez, eta merkatuak ez dituzenez beti behar adina saritzen, nekazariak programa horietan parte har dezaten sustatu behar da.

Agindu honen bidez, Europar Batasunak eta EAEk elkarrekin finantzaturako laguntza batzuen araubidea arautu nahi da, zehazki nekazariak nekazaritzako eta elikagaigintzako produktuen kalitate-araubideetan parte hartzea sustatzeko laguntzena. Gainera, agindu honetaz baliatuta, 2022. urterako deialdia ere egin nahi da. Helburu nagusia hau da: ziurtaturako kalitadedun euskal produktuak elikadura-katean hobeto sartzeko laguntzea, hain zuzen ere ekoizleek eta produktuek kalitate-araubideetan duten parte-hartzea areagotuz, produktu horiek barne- eta kanpo-merkatuetan duten kokapena eta aintzatespena hobetuz.

Produktu horiek elikakatean hobeto sartzeko lagunduko da funtsean neurri horren bidez; horretarako, gure ekoizpen-sektorearen eginkizuna sustatu behar da eta, neurri txikiago batean, transformatzaileena, elikakateari balio erantsi bat eman dakion. Halaber, ziurtaturako eta aitortutako kalitatea duten euskal produktuak hobeto jarri behar dira Erkidegoko merkatuetan, eta sustatu behar da Euskal Autonomia Erkidegoko ekoizleek eta produktuek parte-hartze handiago bat izan dezaten Euskadiko kalitate berezi eta ziurtatuaren estrategian.

Horretaz gain, egitura-arazoak dituzten ustategiak berregituratzen lagunduko du neurri horrek; horretarako, ustategien lehia-hobekuntza bultzatzeko, kalitate-bereizgarriak har ditzaten sustatuko da eta horiek balio erantsi bat emango diete euren ekoizpenei.

Halaber, berrikuntzan ere lagunduko du zeharka; izan ere, merkatuetan kalitate ziurtatua duten produktuak apurka-apurka ugaritzen eta finkatzen joateak eragingo du produktu horien barietateak, formatuak, etiketak, aurkezpena, eta abar berritzea. Halaxe gertatu da Euskadin (1992) apustu politikoa egin zenetik, kalitate bereiz eta ziurtatuaren strategiaren alde, gure nekazaritzako eta elikagaigintzako ekoizpen gehienetan.

Azkenik, ekoizpen ekologikoa ere sustatzen den aldetik, nolabait lagunduko du biodibertsitatea berrezartzen eta zaintzen, Natura 2000ko eremuetakoa, natur balio handiko nekazaritza-sistemetakoa eta paisaia europarretakoa, ingurumena zaintzeaz batera.

Horregatik guztiagatik, eta kontuan hartuta arlo honetako araudi guztia eta Jaurlearitza buruzko ekainaren 30eko 7/1981 Legearen 26.4 artikulua, honako hau

#### EBAZTEN DUT:

Artikulu bakarra.– Onartzea nekazaritzako eta elikagaigintzako produktuen kalitate-araubideetarako laguntzen deialdiko oinarri arautzaileak, 2022ko ekitaldirako, I. eranskinean adierazitako eran.

AZKEN XEDAPENETAKO LEHENENGOA.– Errekurtsoak.

Agindu honen aurka, berraztertze errekurtsoa aurkez diezaioke interesdunek Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburuari, hilabeteko epean. Bestela, administra-

2022ko martxoaren 18a, ostirala

zioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez dezakete Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salan, bi hilabeteko epean. Kasu bietan, agindua argitaratu eta bihar-ramunean hasiko dira epeak.

AZKEN XEDAPENETAKO BIGARRENA.– Ondorioak.

Agindu honek Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera izango ditu ondorioak.

Vitoria-Gasteiz, 2022ko martxoaren 8a.

Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburua,  
MARÍA ARANZAZU TAPIA OTAEGUI.

2022ko martxoaren 18a, ostirala

## I. ERANSKINA

## OINARRI ARAUTZAILEAK

## I. KAPITULUA

## XEDAPEN OROKORRAK

## 1. oinarria.– Xedea.

Agindu honen xedea Euskal Autonomia Erkidegoko Landa Garapenerako 2015-2020 programan jasota dauden laguntza hauek deitzea da 2022ko ekitaldirako: M03.1. Nekazariak kalitate-araubideetan lehen aldiz parte hartzeko laguntza, eta M03.2. Barne-merkatuko ekoizle-taldeek abiarazitako informazio- eta promozio-jardueretarako laguntza. Laguntza horiek, hain zuzen ere, Landa Garapenerako Europako Nekazaritza Funtsaren (LGENF) bitartez landa-garapenari laguntzak emateari buruzko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 1305/2013 (EB) Erregelamenduaren 16. artikulutik eratortzen dira.

## 2. oinarria.– Laguntza motak.

Laguntzak bi motatakoak dira:

a) M03.1: Nekazariak kalitate-araubideetan lehen aldiz parte hartzeko laguntza. Urteko ordainsari bat emango da ustiatetik; ordainsari horren zenbatekoa kalkulatzeko, kontuan hartuko dira zenbaterainokoak diren eskatzaileari kalitate-araubideak eragiten dizkion kostu finkoak, onuraduna inskribatzen denetik 5 urtera gehienez.

b) M03.2: Informazio- eta promozio-jardueretarako laguntza, ekoizle taldeek Erkidegoko merkaturako egindako jardueretarako, kalitate-araubideren batek estalitako produktuei begira. Dirulaguntza zuzen baten bidez lagunduko da informazio- eta promozio-ekintzetan diruz lagundu daitezkeen kostuen ehuneko baten gainean.

## 3. oinarria.– Finantzaketa.

Aurrekontuari dagokionez, 2022ko ekitaldiko laguntza-programa Elikagaien Kalitate eta Industriako Zuzendaritzaren eta Landa Garapenerako Europako Nekazaritza Funtsaren aurrekontuen kreditu egoki eta behar besteko baten kontura finantzatuko da.

Nekazariak II. kapituluko kalitate-araubideetan (M03.1) parte har dezaten ematen diren laguntzak finantzatzera bideratutako aurrekontu-kreditua Elikagaien Kalitate eta Industriako Zuzendaritzak eta Landa Garapenerako Europako Nekazaritza Funtsak batera finantzatuko dute, eta 32.632,32 eurokoa da; horietatik, 15.337,19 euro Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorren kontura finantzatuko dira (% 47), eta 17.295,13 euro Landa Garapenerako Europako Nekazaritza Funtsa izeneko Europako funtsaren kontura (% 53), Euskal Autonomia Erkidegoko Landa Garapenerako 2015-2020 Programaren babesean. Eta 218.662,81 euroko zati ez-kofinantzatuko bat, gehigarri nazional gisa aurreikusitakoa, Elikagaien Kalitate eta Industriako Zuzendaritzaren aurrekontuen kontura. 2022ko ekitaldiko ordainketa-kredituari dagozkio denak.

III. kapituluko kalitate-araubideek (M03.2) estalitako produktuei buruzko informazio- eta promozio-jarduerak finantzatzera bideratutako aurrekontu-kreditua, berriz, 58.013 eurokoa da; horietatik, 27.266,11 euro Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorren kontura finantzatuko dira (% 47), eta 30.746,89 euro LGENF Europako funtsaren kontura (% 53), Euskal Autonomia

Erkidegoko Landa Garapenerako 2015-2020 Programaren babesean. Eta 388.733,89 euroko zati ez-kofinantzatu bat, gehigarri nazional gisa aurreikusitakoa, Elikagaien Kalitate eta Industriako Zuzendaritzaren aurrekontuen kontura. 2022ko ekitaldiko ordainketa-kredituari dagozkio denak.

Eman beharreko laguntzen guztizko bolumenak ez du gaindituko adierazitako zenbatekoa. Diru-zuzkidura hori handitu ahal izango da, kontuan hartuta eskatutako laguntzak guztira zenbatekoak diren eta aurrekontuetan zenbat diru geratzen den erabilgarri beste programa batzuk egikaritutakoan. Gehikuntza hori gertatuz gero, hasieran aurreikusitako zuzkidura agortu baino lehen egin beharko da, eta horren berri emango da Nekazaritzako, Arrantzako eta Elikagai Politikako sailburuordearen ebazpen baten bitartez.

#### 4. oinarria.– Onuradun izateko betekizun orokorrak.

Onuradun izan nahi duten pertsonak Euskal Autonomia Erkidegoko Landa Garapenerako 2015-2020 Programan jasota dauden laguntzen esparru-legedia ezartzen duen otsailaren 7ko 43/2017 Dekretuaren 5. artikuluan ezarritako eskakizunak bete beharko dituzte, bai eta Dirulaguntzei buruzko abenduaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 13. artikuluan jasota daudenak, bai eta deialdi honen 19. eta 26. oinarrietan laguntza-lerro bakoitzerako berariaz ezarrita daudenak ere; eta zehazki, hauek:

1.– Diruz lagundu daitezkeen gastuak dituzten establezimenduak Euskal Autonomia Erkidegoko lurraldean egon behar dira.

2.– Zergen arloko betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean izatea, eta dirulaguntzak itzultzeko betebeharrak ordainduta izatea.

3.– Ez dute izan behar dirulaguntza edo laguntza publikoak eskuratzea eragozten duen zehapen administratiborik edo penalik, ezta horretarako legezko inolako debekurik ere, sexu-bereizkeriagatiko debekuak barnean izanik, Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen azken xedapenetako seigarrenean xedatutakoarekin bat.

4.– Administrazio-bideko itzulketa- edo zehapen-prozeduraren bat izanez gero, laguntzak baldintzatuta egongo dira prozedura hori ebatzi arte; zehapena berresten bada, laguntzak ukatuko zaizkie.

#### 5. oinarria.– Eskabideak eta agiriak.

1.– Pertsona fisikoek modu presentzialean zein elektronikoa aurkez ditzakete eskabideak:

– Modu presentziala: eskabideak Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailaren bulegoetan aurkeztuko dira (Donostia kalea 1 – 01010 Vitoria-Gasteiz) edo Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikulua xedatzen dituen tokietariko edozeinetan, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren eta haren erakunde autonomoen erregistroen sorrera, antolaketa eta funtzionamenduari buruzko apirilaren 29ko 72/2008 Dekretuarekin bat etorritik.

– Modu elektronikoa: Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoa sartuta aurkeztuko dira eskabideak, oinarri honen 3. apartatuan adierazten diren helbideen bidez.

Eskabidea izapidetzeko eta dokumentazioa aurkezteko moduak (elektronikoa zein presentziala izan) ez du behartuko aurrerantzean ere prozedurako gainerako izapideak modu berean egitera, edonoiz alda daiteke eta.

2.– Pertsona juridikoen baliabide elektronikoz aurkeztuko dituzte eskabideak, oinarri honen 3. apartatuan adierazitako helbide elektronikoen bidez.

3.– Eskabideak eta horiek izapidetzeari buruzko jarraibideak –aurrez aurreko moduan nahiz modu elektronikoa– eta behar diren gainerako ereduak edo memoriak eskuragarri egongo dira Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoa, helbide hauen bitartez:

– Nekazariak kalitate-araubideetan parte hartzeko laguntzak: <https://www.euskadi.eus/zerbitzuak/1028812>

– Kalitate-araubideek estalitako produktuei buruzko informazio- eta promozio-jardueretarako laguntzak: <https://www.euskadi.eus/zerbitzuak/1028813>

4.– Izapidetze elektronikoa dagokionez, eskaera egin ondorengo izapideak eta jakinarazpen elektronikoak egiteko, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoko «Nire karpeta» atalera jo beharko da: <https://www.euskadi.eus/nirekarpeta>

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoa onartutako identifikaziorako eta sinadura elektronikorako bitartekoak helbide honetan eskuratu daitezke: <https://www.euskadi.eus/ziurtagiri-elektronikoak>

Izapidetze elektronikoa ordezkari baten bidez ere egin ahal izango da, eta, horretarako, ordezkari hori Eusko Jaurlaritzaren Ahalordeen Erregistroan inskribatu beharko da, helbide honetan: <https://www.euskadi.eus/ordezkaririk>

5.– Laguntza-eskatzaileek, 20. eta 27. oinarrietan adierazitako agiriez gain, hauek aurkeztu beharko dituzte:

a) Eredu presentziala hautatzen duten pertsona fisikoek honako webgune honetan eskuragarri dagoen inprimakia aurkeztu beharko dute: <https://www.euskadi.eus/zerbitzuak/1028812>. Eskabide-orka modu informatikoa bete eta grabatu ostean, inprimatu eta paperean bidali beharko da, sinatuta. Eskabide elektronikoa hautatzen duenak, berriz, nahikoa izango du egoitza elektronikoa inprimakia betetzea, hurrengo apartatuen arabera beharrezko diren agiriak erantsi, eta eskabidea elektronikoki sinatzea.

b) Pertsona juridikoa izanez gero, enpresaren IFKa, ahalordetze-eskrituraren fotokopia eta erakundearen eratze-eskrituraren eta estatutuen fotokopia, dagokien erregistroan zigilatuta. Ondasun-erkidegoak eta sozietate zibilek eratze-kontratu bat aurkeztu beharko dute, eta laguntza-eskabidean ordezkari-gaitasuna dutela egiaztatu. Horretarako, berariazko akordio bat aurkez dezakete, IV. eranskineko ereduari jarraituz.

c) Erantzukizunpeko adierazpena, honako hauek adierazita: aurkeztutako agiri guztiak egiazkoak direla, aginduan ezarritako betekizun guztiak betetzen dituela laguntzarako eskubidea izateko aitortzea lortzeko, hori egiaztatzen duen dokumentazioa daukala, eskatzen zaionean Administrazioaren eskura jarriko duela dokumentazio hori, eta aurreko betebeharrak aipatutako aitortzen horri dagokion aldi osoan betetzeko konpromisoa hartzen duela. Era berean, erantzukizunpeko adierazpenean adieraziko da ea beste administrazio edo erakunde publiko zein pribatuen batek laguntzarik eman dion eskabidean aurkeztutako gastu berberak ordaintzeko. Pertsona juridikoen kasuan, partaide direnen izen-abizenak, NAN eta sexua adierazi beharko dira.

6.– Zuzendaritza kudeatzailearen zerbitzu teknikoak automatikoki egiaztatuko dute onuradunak egunean dituela zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak, bai eta haren NAN/IFK ere.

Hala ere, eskatzaileak baimen hori berariaz uka dezake, baina, kasu horretan, adierazitako dokumentuak aurkeztu beharko ditu.

7.– Aurreko ekitaldietan deitutako laguntzen onuradunek, eta aldaketarik izan ez bada, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 53. artikuluko 1. zenbakiaren d) apartatuan ezarritakoarekin bat eginda, ez dute aurkeztu beharko 5. zenbakiko b) apartatuan adierazitako dokumentazioa; pertsona juridikoek, ordea, berariazko akordioa aurkeztu beharko dute betiere, IV. eranskineko ereduari jarraikiz.

8.– Eskabideak aurkezteko epea hilabetekoa izango da, agindu honek ondorioak dituen egunetik hasita.

9.– Laguntza jasotzeko eskabidea nahi den hizkuntza ofizialean aurkeztu ahal izango da, eskatutako dokumentazioarekin batera. Ildo horretatik, eskatzaile bakoitzak hautatutako hizkuntza erabiliko da eskaera aurkeztu ondorengo jardueretan ere, prozedurak irauten duen bitartean, Euskararen erabilera normalizatzeko 1982ko azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legearekin bat.

10.– Eskabideak baldintza guztiak betetzen ez baditu, interesdunari jakinaraziko zaio hamar egun balioduneko epea duela akatsa zuzentzeko edo behar diren agiriak eransteko. Halaber, adieraziko zaio horrela egin ezean atzera egin duela ulertuko dela, Elikagaien Kalitate eta Industriako zuzendariak ebazpena eman ostean, urriaren 1eko 39/2015 Legearen 68. artikuluan xedatutakoarekin bat.

11.– Edonola ere, Elikagaien Kalitate eta Industriako zuzendariak beharrezkotzat jotzen duen agiri edota informazio osagarri oro eska diezaioke eskatzaileari, aurkeztutako eskabidea egokitu, ulertu, ebaluatu eta izapidetzeko.

6. oinarria.– Laguntzen kudeaketa.

1.– Elikagaien Kalitate eta Industriako Zuzendaritza da laguntza hauek kudeatzeko organo eskuduna.

2.– Balorazio-batzorde bat eratuko da eskabideak aztertu eta ebaluatzeko. Hiru kide izango ditu, zuzendaritza eskudunari atxikiak; horietako bat programa honen arduraduna izango da, eta zuzendaritza horretako teknikarien artean aukeratuko dira beste biak. Halaber, ordezkoko bat izendatuko da batzordekide bakoitzeko. Elikagaien Kalitate eta Industriako zuzendariak izendatuko ditu horiek guztiak, ebazpen bidez, eta ebazpen horretan adieraziko da nor izango diren batzorde horretako idazkaria eta batzordeburua. Batzordeak, bere eginkizunak betetzeko, arloko aditu diren pertsoneri eskatu ahal izango die hala bileretan parte hartzeko nola aholkularitza emateko, beharrezko irizten dionean.

3.– Balorazio-batzordearen egitekoak honako hauek izango dira:

a) Aurkeztutako eskabide guztiak aztertzea, eta aplikatzekoa den araudia betetzen ez dutenak baztertzea. Baztertutako horien zerrenda egingo du, eta banan-banan azalduko du zein izan den baztertzeko arrazoia.

b) Araudia betetzen duten eskabideak ebaluatzea, laguntzen irizpide objektiboen eta kuantifikazioaren arabera.

c) Laguntza-mota bakoitzeko, onuradun bakoitzari eman beharreko zenbatekoari buruzko proposamen bat egitea. Proposamen hori behar bezala justifikatu eta arrazoitu beharko da.



4.– Batzordeak bere funtzionamendu-arau propioak ezarri ahalko ditu. Arau horiek aurreikusten ez dituzten gaietan, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 15.etik 18.era arteko artikuluetan xedatutakoa aplikatuko da.

7. oinarria.– Ebazpena.

1.– Otsailaren 7ko 43/2017 Dekretuaren 22. artikuluan ezarritakoarekin bat, aurkeztu diren eskabideak eta agiriak aztertuta, eta batzordeari iritsi zaion proposamena ikusita, Elikagaien Kalitate eta Industriako zuzendariari dagokio deialdia ebaztea. Ebazpen-proposamenarekin bat ez datorren ebazpenik ematen badu, behar bezala arrazoitu beharko du.

2.– Ebazpenak arrazoituta egon behar du, eta informazio hau jaso behar du gutxienez:

A) II. kapituluko laguntzei buruz:

– Onuradunaren izena edo sozietate-izena.

– Laguntzaren xedea.

– Guztira zenbat jaso behar duen, eta, kopuru horretatik zenbat finantzatu behar den LGENF Europako funtsaren kontura eta zenbat Euskal Autonomia Erkidegoko aurrekontuaren kontura.

B) III. kapituluko laguntzei buruz:

– Ekoizle onuradunen taldea.

– Laguntzaren xedea.

– Diruz lagundu daitezkeen gastuen zenbatekoa.

– Dirulaguntzaren kopurua, eta, kopuru horretatik zenbat finantzatu behar den LGENF Europako funtsaren kontura eta zenbat Euskal Autonomia Erkidegoko aurrekontuaren kontura.

3.– Ebazpen bakarra emango da, eta eranskinetan bi kapituluetako eskabideei buruzko informazioa jasoko du, hala kofinantzatutako espedientei buruzkoa nola espediente ez-kofinantzatuei buruzkoa. Gehienez ere sei hilabeteko epean eman eta jakinaraziko da ebazpena, agindu honek ondorioak dituenetik hasita. Epe hori bukatu eta ebazpen berariazkorik eman ez bada, interesdunek ezetsizat jo beharko dituzte eskabideak, hala xedatzen baita urriaren 1eko 39/2015 Legearen 25. artikuluan eta Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauerei buruzko Legearen 51.9 artikuluan.

4.– Lehia-konkurrentziako prozeduraren ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da, eta argitalpena jakinarazpentzat hartuko da, urriaren 1eko 39/2015 Legearen 45. artikuluan 1. paragrafoko b) apartatuan xedatutakoaren arabera. Hala eta guztiz ere, interesdun bakoitzari jakinaraziko zaio ebazpen osoaren berri. Nolanahi ere, lehenengo egin den jakinarazpenaren data joko da jakinarazpen-datatzat.

5.– Ebazpenak laguntza baietsi nahiz ezetsi, beraren aurka, interesdunak gora jotzeko errekurtsoa aurkez diezaioke Nekazaritzako, Arrantzako eta Elikagai Politikako sailburuordeari. Horretarako, hilabeteko epea izango du ebazpenaren jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik aurrera, edo hiru hileko epea administrazio-isiltasunak ondorioak izan eta hurrengo egunetik aurrera, urriaren 1eko 39/2015 Legearen 121. artikuluetan xedatutakoarekin bat.

6.– Oinarri honen 4. apartatuan aipatzen den jakinarazpena gorabehera, Elikagaien Kalitate eta Industriako Zuzendaritzaren ebazpen baten bidez Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argita-



ratuko da agindu honen babesean laguntza jasoko duten pertsonen zerrenda; bertan, emandako kopuruak ere adieraziko dira, publiko egiteko baino ez.

7.– Onuradunei emateko, ezinbestekoa izango da Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak eta haren erakunde autonomoek emanda dituzten izaera bereko laguntzen edo dirulaguntzen arloan hasi eta oraindik izapidetzen ari diren itzulketa- edo zehapen-prozedura guztiak amaituta egotea.

8. oinarria.– Onuradunen betebeharrak.

Onuradunek otsailaren 7ko 43/2017 Dekretuaren 15. artikuluan ezarritako betebeharrak bete beharko dituzte, hala nola Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Legearen 14. artikuluan adierazitakoak eta laguntza-lerro bakoitzari berariaz dagozkienak eta hauek:

a) Emandako dirulaguntza onartzea. Horren haritik, dirulaguntzaren onuradunak ez badio dirulaguntzari idatziz uko egiten dirulaguntza emateko jakinarazpena jaso eta hamabost eguneko epean, dirulaguntza hori isilbidez onartu dela ulertuko da.

b) Diruz laguntzen den gastua egitea emate-ebazpenak xedatzen duen epean.

c) Zertarako ematen den dirulaguntza, horretarako erabiltzea.

d) Eskatutako informazio guztia ematea Elikagaien Kalitate eta Industriako Zuzendaritzari, Kontrol Ekonomikoko Bulegoari eta Herri Kontuen Euskal Epaitegiari, jasotako laguntzak nola erabili diren eta haien helburuak bete diren fiskalizatzeko eginkizunetan.

e) Idatziz jakinaraztea beste administrazio edo erakunde publiko zein pribatu batzuek, dirulaguntzak eta laguntzak eman dizkiotela diruz lagunduko den ekintza berbererako. Jakinarazpen hori inguruabar horren berri izan eta hamabost egun naturaleko epean egin behar dute, eta, betiere, jasotako funtsei eman zaien erabilera justifikatu baino lehen.

f) Laguntza emateko kontuan hartutako egoera subjektibo edo objektiboren bat aldatzen bada, aldaketa idatziz jakinaraztea, Elikagaien Kalitate eta Industriako Zuzendaritzari. Jakinarazpen hori aldaketa horren berri izan eta hamabost egun naturaleko epean egin behar dute, eta, betiere, jasotako funtsei eman zaien erabilera justifikatu baino lehen.

g) Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testuategina onartu duen azaroaren 11ko 1/1997 Legegintza Dekretuaren 50.2 artikuluan xedatutako betebeharrak betetzea.

h) Otsailaren 7ko 43/2017 Dekretuaren 9. artikuluan ezarritako informazio- eta publizitate-bete-kizunak betetzea (43/2017 Dekretua, Euskal Autonomia Erkidegoko Landa Garapenerako 2015-2020 Programan jasota dauden laguntzen esparru-araudia ezartzekoa).

9. oinarria.– Gauzatzeko epeak.

Ekintzak gauzatzeko gehieneko epea 2022ko abenduaren 31 izango da.

10. oinarria.– Gastua justifikatzea.

1.– Laguntzen gastua justifikatzeko, honako agiri hauek aurkeztu beharko dira Elikagaien Kalitate eta Industriako Zuzendaritzaren aurrean:

a) Kalitate-araubideetan parte hartzeko laguntzei dagokienez, kalitate-araubideen kontrol-agintaritzak edo ziurtapen-organoek egindako ziurtagiria. Ziurtagirian hauek adieraziko dira: zein egunetan sartu den eskatzailea kalitate-araubidean eta, kasu bakoitzean, zenbat hektarea, abel-

buru, litro eta erlauntz sartu diren kalitate-araubide bakoitzean. Informazio hori ofizioz eskatu ahal izango du laguntza kudeatzen duen organoak, salbu eta eskatzaileak egiaztapen horren aurka egiten badu; kasu horretan, dagokion ziurtagiria aurkeztu beharko du. Gastua justifikatzeko, ondorio baliokideak izango ditu eskatzaileak 20. oinarriaren 1d) apartatuari jarraikiz aurkeztutako dokumentazioak.

b) Kalitate-araubideek estalitako produktuei buruzko informazio- eta promozio-jardueretarako laguntzei dagokienez:

– Egindako jarduerak justifikatzeko memoria.

– Informazio, promozio eta publiziterako erabilitako materiala, bai eta 25. oinarria betetzen dela egiaztatzen duten bestelako agiriak ere.

– Fakturak eta ordainagiriak.

– Memoria gehigarria, egindako fakturen eta ordainketen datuen taula xehatua jasoa duena, baldin eta 10 faktura baino gehiago badaude.

2.– Laguntzei dagozkien proiektuetako gastuak aurkezteko azken eguna 2023ko urtarrilaren 15a da.

3.– Elikagaien Kalitate eta Industriako zuzendariak, eskaera arrazoitu bidez, egoki deritzon edozein agiri gehigarri eskatu ahal izango du.

11. oinarria.– Tokian bertan egindako kontrolak.

1.– Tokian bertan egindako kontrolek egiaztatuko dute eragiketa aplikatu beharreko arauen arabera egin dela, eta laguntza emateko baldintzei dagozkien onargarritasun-irizpide eta- bete-kizunak, konpromisoak eta bestelako betebeharrak hartuko dituzte barnean, hau da, bisitaren unean egiaztatu daitezkeenak. Halaber, bermatu egingo dute eragiketarako eskubidea duela deialdi honen laguntza jasotzeko. Ahal den neurrian, eragiketaren azken ordainketa egin baino lehen gauzatuko dira kontrol horiek.

2.– Laguntzaren onuradunei kontrol-bisita bat egingo zaie, in situ. Horretarako, kontrol-laginean sartutako espedienteak laguntza hauen LGENF gastuaren % 5era iritsi beharko dira. Lagina ausaz hautatuko da. Kontrol-laginean, modu zuzenduan ere sartu ahal izango dira espedienteak, kofinantzatuta ez daudenak sartuta. Horretarako, irizpide hauek hartuko dira aintzat:

– Azken urtean, 3. neurriarekin lotutako laguntzen arloan ez-betetzeak atzeman zaizkien onuradunak.

– Laguntza gehien jaso duten espedienteak.

12. oinarria.– Ordainketa.

1.– Laguntza bien onuradunei ordaindu baino lehenago, helburua eta gastua bete direla egiaztatu beharko dute, aurreko oinarrian xedatutako agirien bidez.

II. kapituluko laguntzen kasuan, 10. oinarriko 1.a) apartatuan aipatzen den ziurtagiria (justifikazioari buruzkoa) eskuratu eta erkatu ondoren egin ahal izango da ordainketa. Ziurtagiri hori eskaera egiten den unean ere aurkez daiteke.

2.– Foru-ogasunarekiko eta Gizarte Segurantzarekiko zerga-betebeharrak egunean dauden, Elikagaien Kalitate eta Industriako Zuzendaritzak egiaztatuko du, automatikoki. Edonola ere,

eskatzaileak berariaz uka dezake baimen hori laguntza-eskabidea, eta halakoetan, dagokion egiaztagiria aurkeztu beharko du, azaroaren 11ko 1/1997 Legegintza Dekretuaren bidez onartutako Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bateginaren 50.3 artikuluan xedatutakoari jarraikiz.

3.– LGENF Europako funtsaren arabera aitortutako laguntzak erakunde ordaintzailearen bidez ordainduko dira, erakunde ordaintzailearen zuzendariak horretarako ebazpenak eman ondoren, abenduaren 9ko 275/2020 Dekretuan xedatutakoarekin bat (275/2020 Dekretuaren bidez, Nekazaritzako Europako Berme Funtsak (NBEF) eta Landa Garapenerako Europako Nekazaritza Funtsak (LGENF) finantzatutako gastuen erakunde ordaintzailearen antolakuntza eta funtzionamendu-araubidea ezartzen dira Euskal Autonomia Erkidegoan).

4.– Zehapen-prozeduraren batean edo dirulaguntzen itzulketa-prozeduraren batean egoenez gero, laguntza jasotzeko, lehenik hura amaitu beharko da. Prozedurak, amaieran, laguntza publikoak eskuratzeko gaitasungabetzea badakar, edo laguntza itzultzeko betebeharra ezartzen badu, emandako laguntza baliogabetu egingo da, onuradun izateko debekua izateagatik. Hala dagokionean, dirulaguntza hauek onuradunei ordaintzeko, dirulaguntzak itzultzeko betebeharren ordainketak egunean izan beharko dira.

5.– Euskal Autonomia Erkidegoko Diruzaintza Nagusiari buruzko irailaren 30eko 211/1997 Dekretuaren 20. artikuluekin bat etorriz, eskatzaileak Hirugarrenen Erregistroan inskribatuta behar du (Kontrol Ekonomikoko Bulegoak kudeatzen du erregistro hori). Horretarako:

a) Izapidetze elektronikoa: Eusko Jaurlaritzaren Hirugarrenen Erregistro Elektronikora jo beharko du, helbide honetan: <https://www.euskadi.eus/hirugarrenak> Aukera hori nahitaezkoa izango da pertsona juridikoentzat.

b) Izapidetze presentziala: hirugarrenen altako eredu normalizatua aurkeztu beharko du, behar bezala beteta eta sinatuta. Eredu hori eskuragarri dago, <https://www.euskadi.eus/hirugarrenak> web-orrian, eta zuzenean Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailaren bulegoetan aurkeztuko da (Donostia kalea 1 – 01010 Vitoria-Gasteiz), edo, bestela, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikulua xedatzen dituen tokietariko edozeinetan, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren eta haren erakunde autonomoen erregistroen sorrera, antolaketa eta funtzionamenduari buruzko apirilaren 29ko 72/2008 Dekretuarekin bat.

### 13. oinarria.– Dirulaguntzaren baldintzak aldatzea.

1.– Dirulaguntza hauek emateko kontuan izan den inguruabarren bat aldatu bada, eta beste edozein erakunde publikok edo pribatuk emandako dirulaguntzarik eta laguntzarik lortu bada, idatziz jakinarazi eta justifikatu behar zaio Elikagaien Kalitate eta Industriako Zuzendaritzari, inguruabar berriaren berri izan eta hamabost egun naturaleko epean, eta, betiere, jasotako funtsak zertan erabili diren justifikatu aurretik. Horrek dirulaguntza emateko ebazpenaren aldaketa eragin dezake.

2.– Baldin eta onartutako proiektua ez bada gauzatzen aurreikusitako epeetan, eskabidearekin batera aurkeztutako proiektua aldatu edo birprogramatu egiten bada, baina proiektua ez bada funtsean aldatzen eta, betiere, laguntza helburu bererako erabiltzen bada, zuzendaritza eskudunari jakinarazi eta justifikatu beharko zaio, idatziz, baina dirulaguntza emateko ebazpena ez da aldatuko. Adierazitako aldaketek proiektua aldatzea badakarte, horren berri ere eman beharko zaio, eta dirulaguntza emateko ebazpena aldatu egingo da.

3.– Baldin eta diruz lagundutako jardueraren behin betiko eta benetako kostua onetsitako gastuaren aurrekontua (laguntza zehazteko baliatu zena) baino txikiagoa bada, emandako diru-laguntzaren zenbatekoa txikitu egingo da likidazio-ebazpenaren bidez, dagokion proportzio aplikagarrian.

14. oinarria.– Atzera egitea eta uko egitea.

1.– Eskatzaileak aukera izango du eskabidean atzera egiteko. Eskatutako laguntzak emateko prozeduraren ebazpena jakinarazi baino lehen egin beharko du atzera. Atzera egitea jasota uzten duen edozein bide erabiliz egin ahal izango da, baldin eta dagozkion sinadurak baditu. Elikagaien Kalitate eta Industriako zuzendariak, ebazpen baten bidez, guztiz onartuko du atzera-egite hori, eta prozedura bukatutzat joko du pertsona horri dagokionez.

2.– Laguntzaren onuradunak uko egin ahal izango dio eman zaion laguntzari. Laguntza onartu ondoren eta gastua egiten bukatu aurretik egin ahal izango dio uko laguntzari, baldin eta Administrazioak ez badu inolako ordainketarik egin, betiere. Uko egitea jasota uzten duen edozein bide erabiliz egin ahal izango da, baldin eta dagozkion sinadurak baditu. Elikagaien Kalitate eta Industriako zuzendariak, ebazpen baten bidez, berariaz onartuko du uko-egite hori, eta prozedura bukatutzat joko du pertsona horri dagokionez.

15. oinarria.– Ez-betetzeak.

1.– Onuradunak eskakizun eta betebeharren bat edo, hala badagokio, dirulaguntza emateko ebazpenean ezarritako baldintzak betetzen ez baditu, eta, hori eginda, laguntzaren helburua desitxuratzen bada, edo Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen 53. artikuluan eta Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 37. artikuluan xedatutako itzulketa-zioetako batean erortzen bada, Elikagaien Kalitate eta Industriako zuzendariak beste ebazpen baten bidez adieraziko du dirulaguntzarako eskubidea osorik edo partez galdu dela eta, behar izanez gero, jasotako laguntzak eta berandutze-interesak Euskal Autonomia Erkidegoko Diruzaintza Nagusiari itzuli behar zaizkiola, betiere Euskal Autonomia Erkidegoaren Aurrekontu Orokorren kontura ematen diren dirulaguntzen bermeei eta itzulketei buruzko abenduaren 17ko 698/1991 Dekretuan eta Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bateginaren 53. artikuluan xedatutakoaren arabera. Horrez gain, ez dira baztertzeko gainerako bidezko ekintzak. Aipatutako diru-kopuruak diru-sarrera publikotzat hartuko dira lege-ondorio guztietarako.

2.– Arau-hauste administratibotzat har daitezkeen gertakarien ondorioz hasten bada itzulketa-prozedura, organo eskudunari jakinaraziko zaizkio gertakariok, dagokion zehapen-prozedura has dezan.

16. oinarria.– Bateragarritasuna.

Administrazio publikoek zein erakunde pribatuek deialdi honetan emandako laguntzak, diruz lagundu daitezkeen gastu bererako izan arren, bateragarriak izango dira baldin eta ez badute gainfinantzaketarik eragiten edota ez badituzte agindu honen 23. eta 31. oinarrietan xedatutako laguntzen mugak gainditzen. Gainfinantzaketarik izan edota mugak gaindituz gero, soberakoari dagokion kopurua kenduko da, Elikagaien Kalitate eta Industriako zuzendariaren ebazpen baten bidez.

## II. KAPITULUA

## NEKAZARIEK KALITATE-ARAUBIDEETAN PARTE HARTZEKO LAGUNTZAK

## 17. oinarria.– Helburua.

Kapitulu honetan adierazitako laguntzen helburua hau da:

- a) Kalitate-programetan ekoizle gehiago sar dadin erraztea.
- b) Kalitate-programetan sartzeak ustiatuei eragiten dizkien gainkostuak murriztea.
- c) Biodibertsitatea, nekazaritza-lurzorua, haren mendeko paisaiak eta ekosistemak zaintzeko eta berrezartzeko eragin handiagoa duten kalitate-programak erraztea.

## 18. oinarria.– Pertsona onuradunak.

1.– Euskal Autonomia Erkidegoan erregistratuta eta jardunean dauden ustiatueien nekazari titularrak izan daitezke laguntza hauen onuradunak, baldin eta lehen aldiz parte hartzen badute aukeran dauden kalitate-araubideetan edo lehen aldiz produkzio-bide berriak biltzen badituzte Ekoizpen Ekologiko Ziurtatuaren kalitate-araubidera 2021eko ekainaren 18tik (egun hori barne) deialdi honetan ezarritako epearen azken egunera bitartean. Gehienez ere, 5 urtez jaso ahal izango dute laguntza. 5 urte horiek zenbatzeko, kontuan hartuko dira kalitate-araubideetarako egungo laguntza-programan lortutako dirulaguntzak, bai eta xede bera izan duten aurreko laguntza-programetan lortutako dirulaguntzak ere.

2.– Onuradunek sartuta egon beharko dute Europar Batasunak aitortu eta Euskal Autonomia Erkidegoan ezarritako araubideren batean, babestutako jatorri-deituretan (BJD), adierazpen geografiko babestuetan (AGB) edo ekoizpen ekologikoan, erregelamendu hauetan xedatutakoarekin bat etorritik: Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 1151/2012 Erregelamendua (EB); Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 1308/2013 Erregelamenduaren (EB) II. zatiko II. tituluaren I. kapituluko 2. sekzioa, ardoari dagokionez; Produktu ekologikoen produkzio eta etiketatzeari buruzko 2007ko ekainaren 28ko 834/2007 Erregelamendua (EB); edo beroriek ordezkatzan dituzten arauak:

1.– Errioxa jatorri-deitura (JD), «Arabako Txakolina / Txakoli de Álava / Chacolí de Álava» (BJD), «Bizkaiko Txakolina / Txakoli de Bizkaia / Chacolí de Bizkaia» (BJD), «Getariako Txakolina / Txakoli de Getaria / Chacolí de Getaria» (BJD), «Idiazabal» (BJD) eta «Euskal Sagardoa / Sidra Natural del País Vasco» (BJD).

2.– «Carne de vacuno del País Vasco» edo «Euskal Okela» (AGB), «Pimiento de Gernika» edo «Gernikako Piperra» (AGB) eta «Euskal Sagardoa / Sidra Natural del País Vasco» (AGB).

3.– Ekoizpen Ekologikoa Ziurtatua.

## 19. oinarria.– Eskakizun espezifikoak.

Dirulaguntzaren eskatzaileek, eskabidea aurkezterakoan, 4. oinarrian adierazitako eskakizun orokorrez gain, hauek ere bete beharko dituzte:

1.– Diruz lagundu daitezkeen kalitate-araubideetan inskribatu eta hango erregelamendu eta arau teknikoak bete behar dituzte, baita, halakorik badago, araubide horiei lotutako ekoizle-erregiroetakoak ere.

2.– Diruz lagundu daitekeen kalitate-bereizgarri bakoitzean indarrean dauden kontrol- eta ziurtatze-tasak egunean ordainduta izan behar dituzte.

20. oinarria.– Dokumentazio espezifikoa.

1.– 5. oinarrian xedatutako agiri orokorrez gain, agiri hauek ere aurkeztu behar dituzte kapitulu honetan adierazitako laguntza eskatu nahi dutenek:

a) Nekazari aktiboa dela egiaztatzeko dokumentazioa, 2015. urtetik aurrera nekazaritzari eta abeltzaintzari zuzeneko ordainketak eta bestelako laguntza-araubideak aplikatzeari eta zuzeneko ordainketak eta nekazaritza-garapenerako ordainketak kudeatu eta kontrolatzeari buruzko abenduaren 19ko 1075/2014 Errege Dekretuarekin bat etorritz.

b) Memoria zehatza, gutxienez hauek adierazita: ustiategiaren deskribapena, kokalekua, egiten den produktuaren ekoizpen-, transformazio- edo elaborazio-prozesua, eta zer-nolako kontrol-ekin-tzak izan dituen eta izango dituen Informazio hori bereizita aurkez daiteke, edo d) apartatuaren dokumentazioarekin batera.

c) Euskal Autonomia Erkidegoko Nekazaritzako Ustiategiaren Erregistroko inskripzioaren ziurtagiria, bera titularra den eta jardunean dagoen nekazaritza-ustiategiarena.

d) Kalitate-araubideren batean inskribatuta dagoela justifikatzen duen dokumentazioa, bai eta, kasuan kasu, zenbat hektarea, abelburu, erlauntza, eta esne-litro dituen erregistratuta justifikatzen duena, laguntzaren zenbatekoa kalkulatu ahal izateko. Kalitate-araubide bakoitza kontrolatu eta kudeatzeko erakundeak egiaztatuko du dokumentazio hori. Gainera, dokumentazio horrek adieraziko du zer egunetan egin zen inskripzioa kalitate-araubidean, eta jakinaraziko du kalitate-araubideek finkatzen dituzten erregelamendu eta arau teknikoak betetzen direla eta indarrean dauden kontrol- eta ziurtapen-tasak ordainduta daudela.

2.– Lehenengo apartatuko a) eta c) letretan adierazitako dokumentuak aurkeztu beharko dira, baldin eta eskatzailea ez badago ados organo eskudunen Elikagaien Kalitate eta Industriako Zuzendaritzak dokumentu horiek kontsultatu eta jasotzearekin, betiere urriaren 1eko 39/2015 Legearen 28.2 artikuluekin bat etorritz. Salbuespenez, aipatu agiriak biltzea ezinezkoa bada, berriz ere aurkezteko eskatuko zaio interesdunari.

21. oinarria.– Diruz lagundu daitezkeen kostuak.

1.– Kapitulu honetako laguntzen ondorioetarako, diruz lagundu daitezke: onuradunak kalitate-araubide hautagarrietan inskribatzeak eragindako kostuak, araubide horietako partaidetza-kuota eta, halakorik badago, behar diren kontroletarako gastuak.

2.– Ekoizle berak parte har dezake araubide batean baino gehiagotan, edo produkzio-bide bat baino gehiago hartu araubide bererako Ekoizpen Ekologiko Ziurtatuaren kasuan eta, ondorioz, bakoitzari dagozkion laguntzak biltzearen ondoriozko onura izan, 23.1 oinarrian xedatutako gehieneko mugaraino.

22. oinarria.– Esleitzeko prozedura.

1.– Balorazio-batzordeak aztertuko ditu nekazariak II. kapituluko kalitate-araubideetan lehen aldiz parte hartzeko laguntza izateko eskabideak. Ebaluazio hori baino lehen, Zuzendaritzari atxikitako teknikari batek aztertuko du eskabide bakoitza, hau da, eskabidearen analisi tekniko eta ekonomikoa egin, txosten batean eskabide bakoitza deialdirako egokia den ala ez adierazi, eta txostena batzordeari aurkeztuko dio. Txostena ez da loteslea izango. Laguntza hori honela kalkulatu da: diruz lagundu daitekeen kasuan kasuko araubidean ziurtatutako unitateak bider

diruz lagundu daitekeen kalitate-araubide bakoitzerako kalkulaturako urteko unitate-zenbatekoak. 2022ko deialdirako, II. eranskineko taulakoak izango dira.

2.– Deialdiko zuzkidura ekonomikoa nahikoa bada kalkulaturako kopuruak emateko, guztiek jasoko dute erabakitako zenbatekoa. Ezarritako gehieneko zuzkidura orokorra nahikoa ez bada eskabide guztietarako, lehentasun-irizpide hauen arabera emango da:

1.– Ekoizpen Ekologiko Ziurtatuaren araubidean sartzen diren ekoizleak, edo kalitate-araubide horretako produkzio-bideak lehendabizi hartzen dituzten ekoizleak.

2.– BJD edo AGBn sartzen diren ekoizleak.

Irizpide horien arabera berdinduta egonez gero, lehentasuna hurrenkera honetan ezarriko da, onuradun-motaren arabera:

1.– Diruz lagundu daitezkeen gainerako kalitate-araubide batean baino gehiagotan inskribatuta dauden ekoizleak.

2.– Sektorean lehendabizi sartzen diren nekazari gazteak diren ekoizleak.

3.– Emakumeen titulartasuneko ustiategiak, titulartasun hori osorik izan edo erdibana izan; edo sozietate baten titulartasuneko ustiategiak, baldin eta emakumeek gutxienez % 50eko partaidetza badute, sozietatea bi kidek osatzen duten kasuetan, edo, behintzat, partaidetza orekatua bada, gainerako kasuetan.

4.– Nekazari gazteak diren ekoizleak (< 41 urte).

5.– Mendialdeko nekazaritza-eremuko ustiategiak dituzten ekoizleak.

6.– Gainerako ekoizleak.

23. oinarria.– Laguntza zenbatekoa den.

1.– Onuradunarentzako urteko ordainsaria finkatzeko, kontuan hartuko da zenbateko kostua lagun daitekeen diruz, «kostu finkoak», inskribatzen den kalitate-araubideari edo -araubideei begira. Laguntzaren gehieneko zenbatekoa 3.000 eurokoa da ustiategiko eta urteko, 5 urtez gehienez. Gehieneko aldi hori kalkulatzeko, kontuan hartuko da pertsona batek zenbat urtetan jaso duen helburu bererako laguntza bat, Landa Garapenerako 2015-2020 Programaren aurreko aldietan lortutakoak barne, edozein dela ere atxikita egon den kalitate-araubidea. Era berean, ez da laguntzarik emango, jaso beharreko zenbatekoa ez bada gutxienez 100 eurokoa.

2.– Laguntza honela kalkulaturako da: onuradunak diruz lagundu daitekeen kasuan kasuko araubidean ziurtatzen aurkeztutako unitateak bider diruz lagundu daitekeen kalitate-araubide bakoitzerako kalkulaturako urteko unitate-zenbatekoak, II. eranskineko «M03.1.10. Ziurtatze-kostuak» izeneko agiriko taulan adierazitakoarekin bat etorriz.

### III. KAPITULUA

#### KALITATE-ARAUBIDEEK ESTALITAKO PRODUKTUEI BURUZKO INFORMAZIO- ETA PROMOTIO-JARDUERETARAKO LAGUNTZAK

24. oinarria.– Helburua.

Kapitulu honetan adierazitako laguntzen helburua hau da:

a) Elikakatean produktu horien sarrera areagotzea; horretarako, produktuen eskaera sustatzeko, kontsumitzaileak eta janari-banatzailak profesionalak informatu behar dira kalitate-araubideez, egon badaudela, zer esan nahi duten eta zer abantaila duten.



- b) Kalitate-araubideetan ekoizle gehiagok parte har dezan erraztea.
- c) Kultur ondarea eta orotariko nekazaritza-ekoizpena erraztea, baita naturagunea babestea ere.
- d) Hizpide diren produktuen ezaugarri edo abantaila zehatzak nabarmentzea; batez ere, kalitatea, ekoizpen-metodo espezifikoak, animalien ongizaterako arau zorrotzak eta ingurumenarekiko errespetua, dagokien kalitate-araubidearen arabera.
- e) Kontsumitzaileak bultzatzea 25. oinarrian adierazitako kalitate-araubide batek estalitako produktuak erostera.

25. oinarria.– Pertsona onuradunak.

Agindu honetan araututako laguntzen onuradun izan daitezke kontseilu arautzaileak, Euskal Autonomia Erkidegoko Nekazaritza eta Elikadura Ekologikoaren Kontseilua, Euskal Autonomia Erkidegoko ekoizle-taldeak eta nekazaritzako eta elikagaien industria-elkarteak, diruz lagundu daitezkeen kalitate-araubide hauetakoren baten partaide badira:

1.– Errioxa jatorri-deitura (JD), «Arabako Txakolina / Txakoli de Álava / Chacolí de Álava» (BJD), «Bizkaiko Txakolina / Txakoli de Bizkaia / Chacolí de Bizkaia» (BJD), «Getariako Txakolina / Txakoli de Getaria / Chacolí de Getaria» (BJD), «Idiazabal» (BJD) eta «Euskal Sagardoa / Sidra Natural del País Vasco» (BJD).

2.– «Carne de vacuno del País Vasco» edo «Euskal Okela» (AGB), «Pimiento de Gernika» edo «Gernikako Piperra» (AGB) eta «Euskal Sagardoa / Sidra Natural del País Vasco» (AGB).

3.– Ekoizpen Ekologikoa Ziurtatua.

26. oinarria.– Eskakizun espezifikoak.

4. artikuluko eskakizun orokorrak ez ezik, honako hauek ere bete behar dituzte:

a) Laguntza eskatzen duten erakundeak diruz lagun daitezkeen kalitate-araubideren baten partaide izan beharko dira.

b) Kalitate-araubideren batek estalitako produktuei buruzko informazio- eta promozio-ekintzak izan behar dira.

c) EBko legeak eta nazio mailako lege aplikagarriak bete behar dira, eta, zehatzago esanda, aipamen argi bat egin behar zaie beti alkohol-dun edarien kontsumo arduratsuari eta alkohol-abusuaren arriskuari buruzko lege- eta erregelamendu-xedapenei, hauei buruzko informazio- eta promozio-jardueretan: Errioxa jatorri-deitura kalifikatua, «Arabako Txakolina / Txakoli de Álava / Chacolí de Álava», «Bizkaiko Txakolina / Txakoli de Bizkaia / Chacolí de Bizkaia», «Getariako Txakolina / Txakoli de Getaria / Chacolí de Getaria» eta «Euskal Sagardoa / Sidra Natural del País Vasco»-babestutako jatorri-deiturak eta «Euskal Sagardoa / Sidra Natural del País Vasco» adierazpen geografiko babestua.

27. oinarria.– Dokumentazio espezifikoa.

5. oinarrian xedatutako agiri orokorrez gain, agiri hauek ere aurkeztu behar dituzte kapitulu honetan adierazitako laguntza eskatu nahi dutenek:

a) Memoria zehatza, egingo diren informazio- eta promozio-jarduerak adierazita: zer helburu duten, zein eremutan, zein herrialde-tarako diren, zer produktu-mota sustatuko diren, zer neurri

espezifikoko aplikatuko den ekintza bakoitzean, zein den ekintza bakoitzerako aurreikusitako kostua, eta zer egunetan egingo diren, ahalik eta zehatzena. Horretaz gain, ekoizle kopurua ere zehaztuko da, hauek identifikatuta: zenbat gazte eta emakume diren, zer enpresa diren, zer bolumen ziurtatu den, zenbateraino handitu daitekeen eskaintza, eta bestelako irizpide batzuk ere, eskabidea hautatzeko edo, horren ostean, laguntzaren zenbatekoa kalkulatzeko garrantzitsutzat hartuz gero.

b) Erantzukizunpeko adierazpena, zeinaren bidez erakunde eskatzaileak konpromisoa hartzen baitu laguntza honen finantzaketaren bidez sortutako informazio-, promozio- eta publizitate-materialak beteko dituela Europar Batasuneko araudia eta otsailaren 14ko 43/2017 Dekretuaren 9. artikuluko baldintzak (Dekretu horren bidez, Landa Garapenerako 2015-2020 Programan aurreikusitako laguntzen esparru-araudia ezartzen da).

c) Erakundearen berariazko akordioa, IV. eranskineko ereduaren arabera egina, eta erakunde horren ordezkariak sinatua, zeinaren bidez erabakitzen baita Elikagaien Kalitate eta Industriako Zuzendaritzari laguntza-lerro hau eskatzea eta izendatzen baita erakunde horren ordezkari bat, laguntza-deialdi honekin lotutako eskabidea eta gainerako izapideak egiteko. Adierazi beharko dira, halaber, erakunde eskatzailearen erabakiak hartzeko organoan parte hartzen dutenen izen-abizenak, NAN eta sexua.

28. oinarria.– Dirulaguntzak jaso ditzaketen jarduerak.

1.– Ekoizleen taldeentzako laguntzak erabiliko dira kalitate-araubideek estaltzen dituzten produktuei buruz merkatu erkidean soilik egiten diren informazio- eta promozio-jarduerak eragindako kostuak ordaintzeko.

2.– Laguntzaren onuradun izan daitezkeen jarduera motek 24. oinarrian ezarritako helbururen bat beteko dute.

3.– Diruz lagunduko dira 2022ko urtarrilaren 1etik 2022ko abenduaren 31ra bitartean egindako informazio- eta promozio-kanpainak martxan jartzearen ondoriozko kostuak, behar bezala justifikatuta. Gehieneko muga % 70ekoa izango da, betiere diruz lagundutako jarduerak osorik gauzatu ez badira onuradunak laguntza-eskabidea aurkeztu baino lehen, kontuan hartu gabe onuradunak kostuon ordainketak egin dituen edo ez. Zehatzago esanda, eta orientazio gisara, diruz lagundu ahal izango dira informazio- eta promozio-ekintza hauei lotutako kostuak:

a) Kalitate-ezaugarri bereizgarrien publizitatea egitea hainbat euskarritan: telebistan, prentsan, irratian, interneten...

b) Komunikazio-euskarriak lantzea eta ekoiztea: liburuxkak, bideoak...

c) Kalitate-bereizgarriak jakitera emateko eta harreman publikoetarako ekintzak.

d) Dastaketak.

e) Gizartea (ikasleak, kontsumitzaileak, preskriptoreak...) produktuen kalitate-bereizgarriez sensibilizatzeko ekintzak.

f) Salmentak jakitera emateko eta sustatzeko ekintzak banaketa handiko establezimenduetan.

g) Euskal Autonomia Erkidegoko saltoki tradizionaletan jakitera emateko eta saltzeko sustapena.

h) Komunikazio- eta promozio-ekintzak, produktu jakin bat kontsumitzea edo erostea gomendatzen duten pertsonekin edo erakundeekin (preskriptoreak).

i) Kalitateko euskal nekazaritza-elikagaiak Estatuko merkatuetan sustatzen eta merkaturatzen laguntzea.

j) Azoketan egoten eta negozio-agendak antolatzen laguntzea.

k) Ostatu, jatetxe eta catering kanalean (HORECA ) eta zirkuitu laburretan salmentak dinamizatzea.

l) Teknologia berrien bidezko informazio- eta promozio-ekintzak.

4.– Ezin dira diruz lagundu informazio- eta promozio-jarduera hauek:

a) Fruta eta Barazki Ekoizleen Elkartek sustatutakoak, eta horien eragiketa-funtsen bidez diruz lagundutakoak.

b) Kalitate-araubide hautagarrietako merkataritza-markak kontsumitzera bultzatzen dutenak.

«c) Mezu nagusizat produktuaren jatorria hartzen dutenak, kasu hauetan izan ezik: «Idiazabal» (BJD), «Errioxa/Rioja jatorri-deitura» (JD), «Arabako Txakolina / Txakoli de Álava / Chacolí de Álava» (BJD), «Bizkaiko Txakolina / Txakoli de Bizkaia / Chacolí de Bizkaia» (BJD), «Getariako Txakolina / Txakoli de Getaria / Chacolí de Getaria» (BJD), «Euskal Sagardoa / Sidra Natural del País Vasco» (AGB), «Euskal Okela» edo «Carne de vacuno del País Vasco» (AGB), Gernikako Piperra / Pimiento de Gernika» (AGB), eta «Euskal Sagardoa / Sidra Natural del País Vasco» (AGB).

5.– Ezin izango da BEZa diruz lagundu inola ere, baldin eta berreskura edo konpentsa badai-teke, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 31.8 artikuluekin bat, eta behar bezala justifikatzen bada. Bai erakundea BEZetik salbuetsita badago, bai BEZaren mendeko jarduerak eta jarduera salbuetsiak garatzeagatik hainbanaketa aplikatzen bazaio, agiri bidez egiaztatu beharko du beti.

6.– Beste autonomia-erkidego batzuetan ere ezarritako kalitate-figurei dagokienez, diruz lagundu daitezkeen gastuak murriztu egingo dira ziurtatutako produktuak Euskal Autonomia Erki-degoan duen proportzioan (pisuari edo bolumenari dagokionez), dena delako kalitate-figuraren guztizkoaren aldean, deialdia argitaratzen den unean amaitutako azken kanpainan.

29. oinarria.– Esleitzeko prozedura.

Laguntzak lehiaketa-prozeduraren bidez esleituko dira, 30. eta 31. oinarrietan ezarritako baldintzen eta zenbatekoen arabera eta aurrekontua agortu arte. Balorazio Batzordeak eskabideak ebaluatuko ditu. Ebaluazio hori baino lehen, Zuzendaritzari atxikitako teknikari batek aztertuko du eskabide bakoitza, hau da, eskabidearen analisi tekniko eta ekonomikoa egin, txosten batean eskabide bakoitza deialdirako egokia den ala ez adierazi, eta txostena batzordeari aurkeztuko dio. Txostena ez da loteslea izango. Espedienteen hurrenkera lortutako puntuen arabera zehaztuko da, handienetik txikienera, hurrengo oinarrian araututako balorazio-prozedurari jarraikiz.

30. oinarria.– Proiektuen balorazioa.

1.– Espedienteen balorazioa eta lortutako puntuen arabera hurrenkera, handienetik txikienera, irizpide hauen arabera egingo da:

a) Produktu gama bat baino gehiago hartzen duten kalitate-araubideak sustatzeko jarduerak. 20 eta 50 puntu artean; 20 gama bakarrerako, eta 50, 5 gama-produktu baino gehiagoko araubideetarako.

b) Ekoizle gazte edota emakume kopurua, zenbat sartu diren azken bost urteetan diruz lagundu behar diren promozio-jarduerak aurkezten dituzten kalitate-araubideetan. 0 eta 40 puntu artean (40 puntu: 10 gazte edota emakume baino gehiago sartu duten araubideak).

c) Kalitate-araubide batean diruz lagundu nahi den promozio-jardueraren barruan sartu diren produktuen balio ekonomiko ziurtatua (dirulaguntzako araubidean aurkeztu aurreko urteko batez besteko PSParen arabera kalkulatuta). 10 puntu (>100.000 euro urteko) eta 30 puntu artean (>15.000.000 euro urteko).

d) Zenbateraino handitu daitekeen kalitate-araubideetan sustatu nahi diren produktuen eskaintza (hizpide den produktuak EAEn duen autohornikuntza graduaren arabera alderantzizko proportzioan zenbatetsiko da, agindu honen III. eranskinean adierazitakoaren arabera). 0 puntu (autohornikuntza gradua > % 100) eta 20 puntu artean (autohornikuntza gradua < % 10).

2.– Berdinketa kasuan, lehentasuna emango zaie informazio- edo promozio-ekintzan ekoizle gehien duten kalitate-programen espedientei.

31. oinarria.– Laguntza zenbatekoa den.

Laguntzaren intentsitatea baldintza hauen arabera egokituko da:

– Promozio-jarduera guztietan, diruz lagundu daitezkeen kostuen % 20 lagunduko da.

– Diruz lagundu daitezkeen gastuen % 70era hel daiteke gehienez laguntza, espedienteak lortutako puntu kopuruari lotutako baremo hauen arabera proportzioan:

- 30 eta 70 puntu artean: diruz lagun daitezkeen kostuen % 60-64.
- 71 eta 100 puntu artean: diruz lagun daitezkeen kostuen % 65-67.
- 101 eta 120 puntu artean: diruz lagun daitezkeen kostuen % 68-69.
- 120 puntu baino gehiago: diruz lagun daitezkeen kostuen % 70.

– Onuradun bakoitzeko, 150.000 eurokoa izango da informazio- edo promozio-jarduera batean diruz lagundu daitekeen gehieneko kostua; jardueratzat hartuko da informazio- edo promozio-programa bat osatzen duten ekintzen multzoa.

– Kalitate-araubide hautagarri batean ere onura ez da izango gastu publikoaren % 25 baino handiagoa, hau da. Landa Garapenerako Programaren aldi osorako azpineurri honetarako aurreikusitakoarena.

32. oinarria.– Betebehar espezifikoak.

Agindu honetan ezarritako betebehar orokorrak betetzeari utzi gabe, onuradunek Euskal Autonomia Erkidegoko Landa Garapenerako 2015-2020 Programan jasota dauden laguntzen esparru-araudia ezartzeko otsailaren 7ko 43/2017 Dekretuaren 9. artikuluan xedatutako informazio- eta publizitate-betekizunak bete beharko dituzte.

2022ko martxoaren 18a, ostirala

## II. ERANSKINA

Kalitate-araubidea	Produktuak / Produkzio-bideak	Unitate mota	Kostua unitateko
Ekoizpen Ekologikoa	Barazkiak	Ha	937,00
	Estentsiboak (zerealak, patatak, proteaginosoak, ekiloreak, lekaleak...)	Ha	74,00
	Mahatsondoak/Olibondoak	Ha	71,00
	Fruta-arbolen sailak (baratzezaintzakoak ez)	Ha	225,00
	Ardiak/ahuntzak	Buruak	5,00
	Hegaztiak	Buruak	1,00
	Txerriak	Buruak	25,00
	Zaldiak/behiak	Buruak	14,00
	Erlezaintza	Erlauntzak	5,00
	Larreak (abeltzaintza-kontrolen arabera)	Ha	30,00
BJD	Idiazabal	100 litro esne	3,60
BJD	DO Arabako txakolina JD / Txakolí de Álava / Chacolí de Álava	Ha	180,00
BJD	DO Bizkaiko Txakolina JD / Txakoli de Bizkaia / Chacolí de Bizkaia	Ha	180,00
BJD	DO Getariko Txakolina JD / Txakoli de Getaria / Chacolí de Getaria	Ha	180,00
JDKa	Errioxa	Ha	180,00
AGB	Gernikako Piperra / Pimiento de Gernika	Ha	1.932,80
AGB	Euskal Okela AGB:	Buruak	45,40
BJD/AGB	Sidra Natural del País Vasco / Euskal Sagardoa	Ha	568,90

## III. ERANSKINA

Produktua	Autohornikuntza %-a	Autohornikuntzako puntuazioa
Ekoizpen Ekologikoa	%, 10	20
Idiazabal BJD	%, 60,72	10
Arabako Txakolina BJD	%, 249,41	0
Bizkaiko Txakolina BJD	%, 249,41	0
Getariko Txakolina BJD	%, 249,41	0
Errioxa JDKa	%, 249,41	0
Gernikako Piperra AGB	%, 35,03	15
Euskal Okela AGB	%, 55,95	13
Euskal Sagardoa BJD/AGB	%, 30,99	15

Autohornikuntzako puntuazioa	Puntuak
AMS<100	0
80<AMS≤100	5
60<AMS≤80	10
40<AMS≤60	13
25<AMS≤40	15
10<AMS≤25	18
10>AMS	20

## IV. ERANSKINA

## BERARIAZKO AKORDIOA

jaunak / andreak (NAN .....),  
..... sozietate zibilaren / ondasun  
erkidegoaren / elkartearen / sozietate mugatuaren / kooperatibaren / kontseilu arautzailearen / beste  
zenbaiten (ezabatu ez dagokiona) ordezkari den aldetik, EGIAZTATZEN DU ezen, erabakiak hartzeko  
organoan 20..(e)ko .....aren .....ean egindako akordioaren bidez, honako hau erabaki zela:

- Eusko Jaurlaritzaren Elikagaien Kalitate eta Industriako Zuzendaritzari dirulaguntza eskatzea, nekazaritzako eta elikagaigintzako produktuen kalitate-araubideetarako laguntzen deialdi honetan:  
.....

- ..... (IFZ: .....) izendatzea, erakunde honen ordezkari, eskabidea egiteko eta administrazioarekin gainerako izapideak egiteko.

Bestalde, honako honen berri jakinarazten da:

- Elkartean / kalitate-araubidean erregistratutako pertsonen guztizko kopurua..... da (sexuaren arabera bereizita).

- Egun, honako hauek dira erakundearen zuzendaritza-organoa edo erabakiak hartzeko organoa osatzen duten pertsonak:

.....(e)n, 20..ko .....aren .....(e)an.

SINADURA